

Pedro Horrillo:

“Armstrongek ere bere babesa eskaini dit”

1 2 urte txirrindularitza profesional mailan. Bi hilabete besterik ez dira pasa Giroa korritzen ari zela izugarriko erorikoa izan eta hil edo biziko egoeran izan dela. 5 egun eman zituen koma egoeran, baina jada Abadiñon duen etxean da. Gertutakoaz oroitzen ez den arren, pozik da aurrera egiteko gogoz, medikuen esanetan, hemendik gutxira, gauzak bide onetik baldin badoaz, bizitza arrunta egiteko aukera izango duelako.

-Zer moduz zaude?

Izan nuen erorikoa izan ostean, pozik. Zorte handia izan nuela aitortu didate medikuek. 13 saihestu apurtu zitzaizkidan eta haietako batzuk birrikak zulatu zizkidaten; odol asko galdu nuen, arnasa hartzeko hainbat arazo, bizkarhezurreko eten txiki batzuk, belaunean eta buruan izugarriko kolpeak... eta hemen nago gogotsu aurrera begira!

-Orain etxean ari zara ari-ketak egiten...

Apurka-apurka hobetzen ari naiz. Oraindik ez naiz bizitza arrunta egiteko gai, baina gauzak bide onetik badoaz, hemendik hilabete t'erdira bizitza arrunta egiteko gai izango naizela uste dut.

-Makina bat dei eta mezu jasoko zenituen...

Emazteak esan zidan nire istripuak oihartzun haundia izan zuela komunikabideetan eta egia esan, dei, mezu, bisita, opari asko egin dizkirate eta denei nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, baita Ermuan nire alde babesa eskainiz sinatu duten guztiei ere.

-Istripuak zer irakatsi dizu?

Bizitza honetan gauza edo gertakizun onak zein txarrak, biekin ikasten dela. Ez duzu sekula pentsatzen halako zezoz gertatu dakizuenik, baina gertatu da eta aurre egin behar zaio. Horixe izan da nire lema, nire 2 seme alaba eta senideengatik datorrena datorrela aurre egitea merezi duela.

-Orain Tour-a korritzen ari dira lankideak. Zu kazetari lanak egiten...

Inbiria sentitzen dut han egoteko aukerarik ez dudalako, halako paraje ederrak ikusi eta ezin gozatua. Horren orde, EL PAIS egunkari-rako zutabe bat idazten ari naiz eguneroko etapei nire ikutu pertsonala erantsiz. Duela 7 urte hasi nintzen kazetaritzan eta gustuko dut hori ere.

-Aurten Armstrong-en itzulerak eman du zeresana...

Itzuli baldin bada ez da dirua arrazoia. Uste dut txirrindularitza, lehia eta preskakuntza bere bizia direla



konturatu dela. Tour-ari ere eman dio ikutu eta emozio puntua. Irabaztea zaila izango duen arren, lanak emango dizkie gainontzekoei. Nire ustez berak irabaziko balu ez litzateke txirrindularitzaren zatia ona izango.

-Armstrong-ek ere pasa zituen urte latzak...

Lehenago ez nuen bere aldeko ez aurkako iritzirik, baina egia esan, nire istripuaren ostean, mezuak bidali dizkit ea zer moduz nagoen galdezka eta bere eskutan dagoen edozer nire eskura jartzeko eskaintza eginez. Benetan eskertzen diot izan duen jokaera.

- Aitor Galdos, Aitor Hernandez... Zer moduzko

etorkizuna ote dute berriek?

Aitor Galdosek aukerak irabazteko urte latzak pasa zituen Italian eta merezitako saria lortu zuen Euskaltelek fitxatu zuenean. Iaz izan zuen eroriko larriaren ostean, aurten denboraldi polita burutu du. Milan-San Remo egindako postua ere itzela izan da. Aitor Hernandez ere ondo ari da. Gaztea da eta jauzi txiki bat eman beharra dauka frog handietan aukerak izateko.

-Besterik?

Nire seme alabekin egoteko inoiz baino asti gehiago izaten ari naizen arren, irrikitan nagoela berriz ere bizikleta gainean aritzeko.

Asier Ibaibarriaga



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72